

En la Casa Consistorial del M I Ayuntamiento de Auritz Burguete a 16 de Junio de 2.007 siendo las 11,30 horas , se reúnen los siguientes concejales electos en las ultimas elecciones, D José Irigaray Gil, Dña M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, D Alejandro Otegui Echeverría, Dña M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán, D Juan Manuel Azanza Burusco y D Luis de Potestad Tellechea y D Jesús Martínez Rico actuando como Secretario D. Pedro María Cenoz Iragui, con objeto de proceder a la Constitución de la Corporación Municipal y a la elección del Alcalde, todo ello en virtud de lo dispuesto en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Local y en el Reglamento de Organización, funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Previamente los concejales electos, en virtud de lo dispuesto en el artículo 7 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, han presentado la credencial ante Secretaría General, así como declaración sobre causas de posible incompatibilidad y sobre actividades que les proporcionen o puedan proporcionar ingresos económicos, sí como declaración de lo señalado en el artículo 75.5 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

### **CONSTITUCION DEL AYUNTAMIENTO**

A fin de constituir la corporación, se forma una Mesa de Edad integrada, como Presidente por el Concejales electo, D. Alejandro Otegui Echeverría por ser el mayor de edad entre los Concejales electos presentes en el acto, por la Concejales electa Dña Maria Arantzazu Oyarbide Lapazarán por ser el de menor edad, actuando de Secretario el que certifica por serlo de la Corporación.

Acto seguido, la Mesa de Edad Comprueba las credenciales presentadas ente Secretaría General, encontrándolas conformes.

Formando este Ayuntamiento un número de 7 Concejales, y habiendo concurrido al acto, según comprobación de la mesa, un total de 7 Concejales electos, se cumple el requisito a que se refieren el artículo 195.4 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General y el artículo 37.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, que dispone que para la constitución de la Corporación es preciso la asistencia de la mayoría absoluta de los Concejales electos.

Seguidamente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 108.6 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General los nuevos Concejales son requeridos por el Presidente de la Mesa de Edad para prestar solemne juramento o promesa. El Presidente de la Mesa formula, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 707/1979, de 5 de Abril, a cada uno de los Concejales la siguiente pregunta “¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones de vuestro cargo de Concejales con lealtad al Rey, y

guardar y hacer guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?”.

Así lo prometen D José Irigaray Gil Dña M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán y D Juan Manuel Azanza Burusco lo juran D Luis de Potestad Tellechea y D Jesús Martínez Rico y lo prometen por imperativo legal Dña M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, y D Alejandro Otegui Echeverría, tomando posesión de sus respectivos cargos

Realizadas las operaciones, la Mesa de Edad declara constituida la Corporación del Ayuntamiento de Auritz Burguete

### **ELECCION DE ALCALDE-TOMA DE POSESION**

A continuación y cumpliendo lo previsto en el artículo 196 de la referida Ley Orgánica, se procede a la elección del Alcalde. El Sr. Presidente de la Mesa da cuenta de los Concejales que por encabezar sus correspondientes listas, pueden ser candidatos a Alcalde y que son los siguientes señores:

D. José Irigaray Gil.  
D. Luis de Potestad Tellechea

Manifiesta D Luis de Potestad Tellechea que renuncia a su derecho a presentarse al cargo de Alcalde

Inmediatamente el Sr. Presidente manifiesta que se va a proceder a la elección del Alcalde, y que ésta se efectuará mediante una sola votación en la que tomarán parte solamente los Señores concejales que son el número de 7. Seguidamente se procede a la votación con el siguiente resultado:

D. José Irigaray Gil.....5 votos  
Votos en blanco.....2 votos

Terminado el escrutinio sin que se haya producido protesta alguna sobre la votación se declara proclamado legalmente Alcalde de este Ayuntamiento D. José Irigaray Gil

Acto seguido, D. José Irigaray Gil , acepta el nombramiento y toma posesión de cargo de Alcalde, ocupando el puesto de Presidencia para lo cual previamente ha prestado solemne juramento, a tenor de la fórmula anteriormente reseñada realizando la siguiente intervención:

POLITICA escrito con mayúsculas, palabra de origen griego que define entre otras cosas “la actividad del ciudadano cuando interviene en los asuntos públicos”, buena definición para dar inicio a esta legislatura. Caras nuevas y

caras que se repiten, seremos por cuatro años los regentes o administradores de los bienes comunales y deberemos tomar decisiones al respecto donde deberá primar el interés general al particular, respetando en todo momento los derechos individuales.

Una de las demandas del movimiento social *Indignados* surgido recientemente, es la de dar la posibilidad de una mayor participación ciudadana en las decisiones públicas, porque lo que no se puede hacer es votar cada cuatro años y gobernar a espaldas del pueblo que te ha refrendado. Al hilo de esta reivindicación no debemos olvidar nunca que somos gestores temporales y que tenemos la obligación de potenciar la directa vinculación de los vecinos en los intereses y temas de la comunidad municipal a la que representamos.

Como alcalde que he sido elegido, por respeto a los que me han precedido en el cargo y a los vecinos de este municipio, intentaré hacer honor a lo que representa la vara que recibo y que en esta *Buena Villa*, título que ostenta nuestro municipio, se conoce con el nombre de “vara de la justicia” y no como “vara de mando”. Sin duda alguna es mas agradable hacer justicia que la imposición del mando.

Acto seguido el Sr. Secretario Interventor presenta el arqueo de fondos, al día de la fecha, firmado por el Alcalde saliente el Interventor y el Tesorero y que arroja unas existencias de 103.587,78 hallandose vigentes dos prestamos por importe de 259.120,87 € de los que 256.490,59 € están dispuestos

A continuación se presenta el Inventario Municipal al día de la fecha , firmado por el Alcalde saliente el Interventor y el Tesorero con un resultado de 6.959.919,20 euros firmando el documento en todas sus hojas, arrojando el mismo el siguiente resultado:

A continuación y después de palabras de salutación del Sr. Alcalde, se levanta la sesión siendo las 12,00 horas, de que se extiende la presente acta que firman las asistentes, de que yo, el secretario, certifico.

Auritzen, 2011ko ekainaren 16an, 11:30ean, azkeneko hauteskundeetan hautatuak izan diren zinegotziak bildu dira, hots: José Irigaray Gil, M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, Alejandro Otegui Echeverría, M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Luis de Potestad Tellechea eta Jesús Martínez Rico. Idazkaria Pedro M. Cenoz Iragui j. izan zen. Bilera Udalbatza eratu eta alkatea hautatzeko egin da, ekainaren 19ko Toki Erregimeneko 5/1985 Lege Organikoan eta Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoaren Arautegian ezarritakoaren arabera

Aldez aurretik zinegotzi hautetsiek, Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoaren Arautegiaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, kredentziala aurkeztu dute Idazkaritza Orokorraren aurrean, hala nola balizko bateraezintasun arrazoien eta diru-sarrera ekonomikoak ematen edo eman ahal dieten jardueren gaineko aitortpena, eta baita Toki Erregimeneko Oinarrien Lege Arautzailearen 75.5 artikuluan ezarritakoaren aitortpena ere.

### **UDALAREN ERAKETA**

Udalbatza eratzeko, Adin-Mahaia osatu da eta horren buru adinez zaharrena den zinegotzia, kasu honetan Alejandro Otegui Echeverria j., izango da eta beste kidea adinez txikiena den zinegotzia, hots, Maria Arantzazu Oyarbide Lapazarán a.; idazkaria honakoa ziurtatzen duena izango da, udalbatzaren idazkaria delako.

Ondoren, Adin Mahaiak Idazkaritza Orokorraren aurrean aurkeztu diren kredentzialak gainbegiratu ditu eta ongi daudela dio.

Udala 7 zinegotziz osatua dagoenez eta bertan, Adin Mahaiak frogatu duen moduan, 7 zinegotzi hautetsi daudenez, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 195.4 artikulua dioena eta Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoaren Arautegiaren 37.4 artikulua dioena, hots, udalbatza osatzeko beharrezkoa dela zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua bertan egotea beharrezkoa dela, betetzen da.

Ondoren, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 108.6 artikulua diotenaren arabera, Adin Mahaiburuak zin edo promesa egitea eskatu die zinegotziei. 707/1979 Errege Dekretuak, apirilaren 5ekoak, diotenaren arabera Mahaiburuak honako galdera egin die zinegotziei: “ Zin egin edo hitz ematen duzu zinegotzi karguaren betebeharrak zintzoki beteko dituzula, Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa gorde eta gordearaziko duzula, Estatuko arau nagusi gisa?”

Eta horrela hitz eman dute José Irigaray Gil, M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán eta Juan Manuel Azanza Burusco; zin egin dute Luis de Potestad Tellechea eta Jesús Martínez Rico eta legeak hala aginduta hitz eman dute M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco eta Alejandro Otegui Echeverría, eta guztiak beren karguetaz jabetu dira.

Egin beharreko guztiak bukatuta, Adin Mahaiak Aurizko Udalbatza eratutzat eman du

### **ALKATEAREN HAUTAKETA – KARGUAZ JABETZEA**

Ondoren eta lehen aipatutako Lege Organikoaren 196. artikulua dioena betetze aldera, alkatea hautatzeari ekin zaio. Mahaiburuak hautetsien zerrenda

bakoitzeko buruen izenak aipatu ditu, horiek baitira alkate izan ahal direnak.  
Hona hemen:

José Irigaray Gil j.  
Luis de Potestad Tellechea j.

Luis de Potestad Tellechea jk. dio alkate izateko eskubideari uko egiten diola

Ondoren Mahaiburuak dio alkatea hautatu behar dela eta bozketa bakarra egingo dela; bozketa horretan 7 zinegotziek parte hartuko dute.  
Jarraian bozketa egin da eta emaitzak hauek izan dira:

José Irigaray Gil.....5 boto  
Boto zuriak..... 2 boto

Boto-kontaketa egin ondoren eta protestarik izan ez denez, aditzera eman da Udalaren alkate José Irigaray Gil j. izendatua izan dela.

Ondoren, José Irigaray Gil jk. izendapena onartu du eta bere alkate-karguaz jabetu da, aldez aurretik zin eginez, eta bilkuraburu postuaz jabetu da eta ondoko hitzak esan ditu:

POLITIKA letra larriz idatzia, jatorriz hitz grekoa da, eta, besteak beste, “herritarrak afera publikoetan parte hartzea” esan nahi du, legealdi honi hasiera emateko definizio ezin hobea. Aurpegi berriak eta errepikatzen diren aurpegiak, lau urtez herriko ondasunak kudeatu eta administratu beharko ditugu, eta hartu beharko ditugun erabakietan interes orokorrak norbanakoen gainetik egon beharko du, une oro norbanakoen eskubideak errespetatuz.

Haserretuak mugimenduaren eskaeren artean erabaki publikoak hartzerakoan parte hartze handiagoa eman behar zaiela herritarrei esaten da, ezin baita onartu lau urtean behin bozkatu eta konfidantza eman dizun herriari bizkar emanez agintzea. Honekin loturik, ezin gara atzendu behin-behineko kudeatzaileak garela eta behartuak gaudela bizilagunak herriko interes zein gaietan inplikatzera.

Alkate hautatua izan naizen neurrian, karguan ni baino lehenago aritu izan direnei zein bizilagunei errespetua zor diedala kontuan hartuz, jasotzen dudak makilak adierazten duena betetzen saiatuko naiz; gure herrian “justiziaren makila” izenez ezagutua izan da, ez berriz “agintearen makila”. Dudarik gabe atseginagoa da justiziaz aritzea agintea inposatzea baino.

Ondoren, idazkariak fondoaren kontaktaren gaineko informazioa eman du, eguneko dataz, kontaketa hori aurreko alkateak, diruzainak eta kontuhartzaileak sinatu dute eta, horren arabera, dagoen dirua 103.587,78 euro da; hortaz gain bi mailegu daude, 259.120,87 euro egiten dutenak, eta horietatik 256.490,59 euro erabili izan dira.

Ondoren, Udalaren inbentarioa aurkeztu da, eguneko dataz; hori ere aurreko alkateak, diruzainak eta kontuhartzaileak sinatu dute, eta dagoena 6.959.919,20 euro dira.

Jarraian eta alkatearen agur hitzen ondoren, 12:00etan bilera amaitu da eta akta hauxe egin dut, alkatearen oniritziarekin, bertan aztertu eta erabaki direnak idatziz jasota gera daitezen.